


# Udaberriko oroimenak



**Ricardo Arana**  
CCOO Irakaskuntzako  
Idazkari Nagusi ohia  
Mukusuluba Ikastolako irakaslea

 rarana21@gmail.com



**Gure historiaren pasarte bat gogoratzera gonbidatu naute. Hala ere, ohartu behar dut ez naizela egokiena honelako hausnarketa egiteko. Adina ez da aitzakia, inoiz ez bainaiz izan buru oneko pertsona eta berehala ahaztu egiten ditut egindako guztiak, ez soilik (sarri ikusten den bezala) gustukoak izan ez direnak.**

BURU TXARREKO HONEK, beraz, gutxi argitu ahal du. Hau dela-eta, ondoko lerroak usteak baino ez dira, gogoan geratu diren aburuak, zirrarak eta ideiak nolabait. Eta kontakizun honetan, gainera, ez dira izen propioak agertuko, hauek garrantzi handikoak izan arren. Baina nire aipamen ezean, hutsuneek min gehiago egin ahal izango zioten benetako historiari.

Harira noa. CCOO-Irakaskuntzaren ardura kasualitatez hartu nuen, transizio garai batean. Hazia landatuta zegoen aspalditik, sustraiak lurraren elikagaiak xurgatzen zituen eta enborra argiaren bila zihoan jadanik. Baina talde berri bat izan behar zen lanean, eta patuak nire ardurapean jarri zuen.

Odol gorriko eta bihotz zuriko talde berri hau, ilusioz josia eta asmoz betea, kantariak zioen bezala, hasi zen lanean. Eta iragatean, taldeak ez zituen aurreko artisauen antzak eta erak, ezta hurrengo garaiaik ekarriko zuen profesionaltasuna. Sindikatua zaintzen zuten baratzezain berriok erdigunean geunden.

Argi genituen nora bideratu nahi genuen gure arbola, zertarako hazi eta zaindu, zer aprobetxatu nahi genuen eta nola. Sindikatu batek, edozein sindikatuk, lanaren kalitatea, besteak beste, langileen lan-baldintzak hobetzea du helburu. Eta horri eman genion buru belarri.

1992. urtea (gure lehenengo urtea baratzezain) bisurtea izan zen. Baina ez dugu gogoratzeko luzapenagatik, aldaketa nabarmena gertatu zelako euskal hezkuntzan, politika mailan, baina ez bakarrik, bertan, gure lan baldintzetan.

1992an dena zegoen pil-pilean euskal hezkuntzan, maila guztietan, sindikalgintzan ere bai. Urte hartan, irakaslego publikoarentzako lan baldintzak arautzen zituen akordio garrantzitsu bat lortu zen. Berandu ailegatu zen, nahasia eta korapilatsua ere izan zen (adostutako guztia ez zen argitaratu), baina, hala eta guztiz ere, erabat erabakiorra izan zen euskal irakasleontzako.

Aurrekontu-plantila eutsi (jaiotze beherakada nabarmena izan arren), egonkortasuna areagotu, lan eskaintza publikoak ezarri, ikasle/gelako erratioak jeitsi, irakasleriaren prestakuntza zabaldu... helburu hauek guztiak izan ziren garatuak akordio honen negoziazioan.

Honen ondorioz, arlo publikoko irakasleen soldatak nabarmen hobetu ziren, graduen sistemari esker (sexenios delakoak). Gaur egunean ikusi ahal dira oraindik, honen ondorioak hileroko nominetan, sistema nahikotxo egokitu arren handik hona. Akordioak, berriz, ez zuen dena konpondu, eta zenbait erreibindikaziok jarraitu zuten beren ibilbide luzea. Hauetariko batek berealdiko garrantziak lortuko zuen hurrengo urteotan.

Sindikatu batentzako berdintasuna elikagai nagusia da, sustraietatik jasotakoa azken adarretara eramatea nahi duelako. Eta euskal funtzio publikoan, xehetasun batzuk alde batera utzita, egunean emakumezko eta gizonezkoen arteko soldata-desberdintasuna problema nagusia ez zen arren, beste diskriminazio oso handi bat sortua zelako, “propio” eta “transferituen” artekoa. Euskal irakasleriak, “transferitua” izanda, ez zuen jasotzen euskal destino-osagarria euskal arlo publikoko beste langileen bezalakoa.

Hamaika aldiz plazaratu zen erreibindikazioa, tranpaz jositako ibilbidea jorratu, eta azkenean, epaitegietara eraman genuen. Borroka (epaitegien aurrean egiten dena borroka baita) luzea izan zen. Maila guztietako epaimahietara heldu zen eta luze itxaron behar fruituak ailegatzeko.

Aldi emankorra izan zen gurea, bai. Goi mailako hezkuntzan, unibertsitatean, jarraitu genuen lana, erakundea bizkortuz eta integratuz, eta bereziki aprobeztatu genuen hezkuntza-itunaren desblokeoa, ez soilik arlo publikoetako irakasleen artean.

Lan-kontrataziopean zeuden langileen artean, hezkuntza berezikoa edo zerbitzuetan publikoan edo esparru pribatuko guztion artean, sendo lan egiten genuen, lan baldintzen duintasun eta egonkortasunaren alde. Izan ere, sare kontzertatuan

lortutako publikokoarekin soldatak berdintzeko akordioa lortu baino lehenago, “Unitate kontzertatuan beherakadak ukituriko ikastetxeei buruzko akordioa” lortua genuen, sare honen irakasleen hoberako.

Garai hartan, euskal hezkuntzaren egitura argitu zen bi saretan banaturik eta Euskal eskola publikoaren Legean ikastolek aukera izan zuten sare publikora bildu ala ikastetxe pribatu geratzeko. Sindikatuaren lana handia izan zen euskal eskola publikoaren alde, langileen lan baldintzak ahaztu barik.

Sindikatu bat ginela soilik aldarrikatzen genuen, baina sindikatu oso bat. Negoziazioa eta mobilizazio ziren tresna nagusia gure lanean, baina tarte ematen genion hausnartzeari. Euskal eskola publiko berriari buruzko eztabaidan, funtsezko ekarpenak bultzatu genituen, arantzadun gaiak sahiestu gabe, euskararena esaterako. Konferentzia batean aztertu, landu eta erabaki genuen alternatiba, eta eragina izan zuela ikusi ahal da oraindik.

Bakea eta askatasunaren aldeko borrokan ere egon ginen. Balore etikoekiko konpromezuak ez genituen alde batera utzi. Aldiz, argi eta garbi aldarrikatu genuen gure iritzia eta biolentziaren ondorioak gehien pairatzen zituztenek gure babesa eduki zituzten.

Nahiz eta gai guztietan busti, CCOOren irakaskuntza federazioak zabaldu zituen bere esparrua, eragina eta onarpena. Inportanteena, noski, langileena. Zuzendaritzaren taldekideak ziren emakumeak eta gizonak toki batetik bestera ibiliak ginen langileen problemak ezagutzeko, iritziak jasotzeko eta proposamenak kontrastatzeko. Afiliazioaren gorakadak eta partehartzeak garatutako lanarekiko lotura zuzena zuten.

Gu sortu ginen enbor beretik sortu direla besteak zioen beste kantari batek. Hurrengo baratzezainak arduratu ziren lan hauetatik fruituak ateratzen, baita arbola honen azala babesten, adarrak kimatzen eta sustraiak sendotzen. Eta arbolak bizirik dirau. Honek adierazten du ondo haien lanaren balio handia.

Gurea ez da arbasoen baratza, askoz berriagoa baita, baina zaila izaten da ezagutzea egungo arbolan, aurreko historiaren bideak. Argiak eta itzalak daude edozein lanen gogoangarian. Hala ere, espero dut iraganeko ibilaldira honetan, gurea hobeto ezagutaraztea, saskiaren hondoan gordeta genuen oroimen-eskukada honen laguntzaz. 